


# txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2002 Ekaina • 23. zenbakia







## ZORTE ON ZUEN HURRENGO BIDAIA Irakasleak

### AURKIBIDEA

|                              |    |
|------------------------------|----|
| HAURTZARO INFORMATZEN .....  | 3  |
| HATZAK BETE LAN .....        | 10 |
| GURASOOK JAKIN DEZAGUN ..... | 16 |
| GU ERE KAZETARI .....        | 20 |
| NAHASTE BORRASTE .....       | 25 |





## HAURTZARO MENDI TALDEAK HILABETERO IBILALDI ZORAGARRI BAT

Haurtzaro Mendi taldea aurtengo ikasturtean ere oso fin aritu da eta hilero antolatu du ibilaldi zoragarri bana. Hona, jarraian, aurtengo ekitaldien errepasoa:

|                   |                                       |
|-------------------|---------------------------------------|
| Urrian .....      | Ulia mendiaren zeharkaldia            |
| Azaroan .....     | Bizikleta txangoa Leizarango parajeen |
| Abenduan .....    | Negu jaia                             |
| Urtarrilean ..... | Eskiatzera                            |
| Martxoan .....    | Zumaia - Deba zeharkaldia             |
| Apirilean .....   | Etxegarate - Lizarrusti zeharkaldia   |
| Maiatzean .....   | Obanos - Artaxona bizikletan          |
| Ekainean .....    | Aquapark!!!!                          |

Benetan azpimarratzekoa Haurtzaro Mendi Taldea egiten ari den lana. Talde honetan ikastolako gurasoak daude. Aipa dezagun baita Haurtzaro Ikastolako ikasle, langile eta gurasoak ere oso pozik daudela hilero antolatzen diren ekintza hauekin. Jarrai aurrera bide horretatik eta MILA ESKER.



*El grupo de montaña de Haurtzaro lleva 7 años funcionando y organizando salidas mensuales que son del agrado de buena parte de las familias de la ikastola. He aquí el programa que durante el curso 2001/02 están llevando a cabo:*

- El mes de octubre, salida al monte Ulia.
- En noviembre travesía en bicicleta por Leizarán.
- En diciembre a Oihanleku, para despedir el año.
- En enero salida al Pirineo oscense para practicar el esquí.
- En marzo la travesía Zumaia-Deba.
- En abril la travesía Etxegarate-Lizarrusti.
- En mayo recorrimos en bicicleta el tramo Obanos-Artajona (Nafarroa).
- Para finalizar el curso montañero con buen sabor de boca, el grupo de montaña organizó una salida al Aquapark de Arcachone a mediados de junio.

*Agradecemos a la organización los buenos ratos que nos han proporcionado. MUCHAS GRACIAS*



## INFORMATIKA IKASTAROA MARTXAN HAURTZAROKO GURASOENTZAT

Informazio eta komunikazio teknologia berrietako gaian buru belarri lanean ari garen honetan, Haurtzaro Ikastolan urrats berri bat eman dugu. Izan ere, gai horren harira, gurasoei zuzendutako informatika ikastaroa jarri dugu martxan Aste Santuko oporren ondoren.


Ikastaroan jorratu diren gaiak Windows, Word, Internet eta posta elektronikoa izan dira. Aipatzekoa da has-tapen mailatik heldu zaiela gai hauei.

Arestian aipatu bezala, ikastaroak apirilaren 8an eta 9an hasi ziren eta maiatzaren 31n bukatu dira. Guztira 30 orduko ikastaroak izan dira, eta bukatutakoan guraso hauek agiri bat eskuratzeko parada izan dute.

**Ikastaro honek lortu duen arrakasta ikusirik, ekain-uztailerako ere ikastaro-eskaintza berria egin da. Horrela, ekainaren 3an eta 4an beste guraso talde bat hasi da.**

Ikastaroan ibilitako gurasoekin hitz egin ondoren, aipatzekoa da guztiak txoratzen egon direla; gustura, bai irakaslearekin bai irakasteko metodologiarekin.

Aurtengo ikasturtean 66 guraso formatu dira teknologia berri hauetan.



*Durante este curso escolar 66 padres-madres de la ikastola han participado en el cursillo de informática. La Asamblea General, planteó la posibilidad de un plan de formación para los padres-madres de la ikastola.*

*Los contenidos que se han trabajado han sido Windows, Word, Internet y correo electrónico. La propuesta tuvo un éxito rotundo, y se comenzó el 8 de abril hasta el 31 de mayo y desde el 3 de junio hasta el 22 de julio.*

*En total han sido 30 horas de cursillo y los 66 participantes han valorado positivamente el proyecto.*





## AURTEN ERE IGERIKETA IKASTAROA EGIN DUGU

1996/97 ikasturtean, Elorsoro Kiroldegia ireki zela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Oiartzungo Udalak egindako eskaintza aprobetxatuz, gure ikasleak igeriketa ikastaroa egitera animatu ditugu.



Horrela bada, azken sei ikasturte hauetan igeriketa ikastaroa antolatu dugu LH 1/2/3/4. mailatako ikasleentzat. Izan ere, argi daukagu igeri egiten jakitea garrantzizkoa dela eta haurraren heziketa integralean bere lekua duela jarduera honek; soinarentzat ez ezik, autonomiaren garapenerako ere lagungarri baita:

- Igone, lagundu txanoa jartzen!
- Aiba!, ez dut galtzontzilorik ekarri!
- Ai! Non daude nire txankletak?

Ikasleak pozik eta gustura ikusi ditugu: Xabi Goya, Guruzne Azpiroz, Mikel Lopez eta Nekane Lezertua monitoreek esan digutenez maila ona ikusi dute oro har; denek aurreratu dute eta talde jatorrak iruditu zaizkie.

Bukatzeko, aipa dezagun maiatza eta ekainean haur hezkuntzako ikasleek ere lauzpabost saio egin dituztela maila bakoitzeko igerilekuan. Izan ere, txiki hauek ere oso gustuko dute ura eta gozatu ederrak hartzeko parada izan dute.

*Este curso los alumnos de 1º, 2º, 3º y 4º han participado en el cursillo de natación promovido por la Diputación y el Ayuntamiento de Oiartzun. Este cursillo de 10 horas de duración tiene como finalidad el dominio de la técnica de natación, tan imprescindible en la actualidad. Los monitores han visto que tienen buen nivel, y que todos han avanzado a lo largo del cursillo.*

*Por otra parte, los pequeños de la casa, también han acudido a la piscina municipal del polideportivo para disfrutar de esta actividad acuática.*





## HAURTZARO IGERIKETA TALDEKO NESKEK BIGARREN SARIA ESKURATU DUTE



Joan den maiatzaren 18 eta 19an Andoaingo Kiroldegian egin zen Gipuzkoako igeriketa txapelketaren finala. Final honetan Haurtzaroko ordezkariak parte hartu zuten eta nesken sailean bigarren postua eskuratu zuten. Hauek ziren gure neska taldeko ordezkariak: Haizea Arbelaiz Kortabarría, Maider Alfonso Aberasturi, Maialen Etxeberria Aguariste, Olatz Rojo eta Aintzane Arrastua Lekuona. Bestalde, talde mistoan hirugarren postua eskuratu zuten.

### Zorionak!!

*El grupo femenino de natación de la Ikastola ha logrado el segundo puesto de natación en la final que se celebró en el polideportivo de Andoaín. Así pues, el equipo formado por Aintzane, Haizea, Maialen, Maider y Olatz recibieron una merecida copa de recompensa por el trabajo realizado a lo largo del curso escolar.*

**¡Felicidades!**

3 ETA 4. MAILA  
SAN MARKOS  
EGUNA NAHI  
OSPATU  
ETA DENOK  
EGIN DUGU  
ABESTU







# GERO ETA MAILA JASOAGOA LORTZEN ARI DIRA HAURTZARO DANTZA TALDEKO KIDEAK:

## 12 DANTZARI FINALERA IRITSI DIRA

Denok dakigun bezala, Haurtzaro Ikastolak hainbat ekintza antolatzen du ikas ordutik kanpo: 'ekintza estraeskolarrak' deritzegunak. Horietako bat euskal dantza da eta bere helburua ahalik eta haur eta gaztetxo gehienek Euskal Herriko dantzak ikastea da.

**Euskal Dantzarien Biltzarrean federatutako taldea da. Momentu honetan, 6 urtetik 16 urte bitarteko 68 dantzarik osatzen dute taldea. Urtez urte, kopurua mantentzen ari da.**

Orain 17 bat urte sortu zen taldea. Gaur egun, Maixabel Oroz lezoarra da nesken taldeko irakaslea. Badira 13 urte Haurtzaro Dantza Taldeko irakasle dela. Xabin Lasa, erreteriarra, da mutilen taldeko irakaslea. Bi horiez gain, Haurtzaro Dantza Taldean ikasitako hiru monitore ere ari dira: Alaitz Bergaretxe, Garbiñe Sanroman eta Lorena Zalakain.

Herriko hainbat ekitalditan parte hartzen du Haurtzaro Dantza Taldeak, hala nola, Xanixtebanetako Soka-dantzan, Inauterietako Intxixuen jaialdian, auzoetako festetan... Horrez gain, herritik kanpoko jaialdi, txapelketa etab.etan.

Txapelketei dagokienez, aieka batetik, nesken txapelketa dago. Txapelketaren finala Legazpin egin da maiatzaren 12an. Haurtzarotik A mailan sei neska aurkeztu dira. B mailan, berriz, hiru. Gure ikastolako ordezkariak honako postu hauek lortu dituzte: A sailean, Nerea Vallejo bosgarren postuan sailkatu zen; Odei Mujikak seigarrena eskuratu zuen; Aiora Etxebeste hamargarrena, eta Maider Mitxelenak hamalargarrena. Eta B sailean, Olatz Mitxelenak hamaikagarren postua lortu zuen, eta Iraia Morenok hamabosgarrena.

Beste aiekatik, mutilen txapelketa daukagu. Gipuzkoako txapelketaren finala Erreterria-Oreretan izan da maiatzaren 18an. 15 dantzari sailkatu ziren finalerako. A mailan 3 dantzari aurkeztu zituen Haurtzaro Dantza Taldeak, B mailan, berriz, lau dantzari. Hona, beren izenak: Gexan Mendizabal, Iker Garmendia eta Jon Irigorri; Imanol Etxebeste, Xabier Lopez, Xuban Irigorri eta Eñaut Fernandez. Mutilek lortu dituzten postu aipagarrienak: Xuban Irigorri bigarren postua eskuratu zuen.

**Zorionak guztioi!!**

*Los dantzaris de Haurtzaro Ikastola han logrado un nivel excelente en los campeonatos de bailes vascos. 12 dantzaris se clasificaron para la final. En el campeonato femenino destacaron Nerea Vallejo y Hodei Mugika, ya que se clasificaron en quinta y sexta posición. A destacar también la participación de Aiora Etxebeste y Maider Mitxelen en el nivel A. En el nivel B destacaremos el nivel mostrado por Olatz Mitxelen e Iraia Moreno.*

*Por otra parte, en la final masculina participaron siete representantes de nuestra ikastola: Gexan Mendizabal, Jon Irigorri, Iker Garmendia, Imanol Etxebeste, Xuban Irigorri, Eñaut Fernandez. Xuban Irigorri se clasificó en segundo lugar.*

*Felicidades a todos los participantes por trabajo realizado y el nivel mostrado.*





## IKASTOLA EGUNA OSPATU ZEN HAURTZARO IKASTOLAN



Aspaldiko ohiturari jarraituz, Haurtzarok Ikastola Eguna ospatu zuen ekainaren 9an, eta urtero bezala, egun osoan zehar izan zen ikuskizunik eta zertan parte hartu.

Aurtengo egitaraua ere herrikoia eta guztiok parte hartzera bultzatzen zuena zen. Hona hemen xehetasun guztiak: Goizeko 9:00etan eman zitzaion hasiera ospakizunari. Izan ere, Haurtzaroko Txistulari taldeak Dianari ekin zion, Ikastola Eguna hastera zihoala iragarritz. Ondoren, suzirien txanda izan zen. Berehala ikastolako trikitilarien soinu alaia entzuteko parada izan zuten bertara hurbildu ziren guztiok, beren emanaldiarekin gozatu baizituzten Ikastolako txokoak.

Jarraian, Haurtzaroko ekintza estraeskolarrerako taldeen txanda izan zen. Euskal dantzakoak, bertso-lariak, txistulariak, gimnasia erritmikokoak, dantza garaikideko partaideak, malabareak, kenpo-key eta sanbokoak, ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko irrika bizian zeuden, eta tarte hori aprobetxatuz, beren emanaldia eskaini zuten.

Eguerdiko 13:00etan ekitaldi ofiziala izan zen. Jarraian, DBH 4. mailako IKASLEEI agurra eskaini

genien. Hauxe baitzen, hain zuzen ere, ikastolatik ateratzen den DBHko laugarren taldea.

Ordubiak aldera bazkaria izan zen, ikastolako guraso, langile eta ikasleentzat. Bazkalondoa, bertako giroa alaitzeko Haurtzaro Ikastolako trikitilari eta pandero joleek bere piezak jo zituzten.

16:00etan gure ikasle txikienentzat antolatutako ekin-tzen tartea izan zen eta gaztelu puzgarriez gozatzeko parada izan zuten. Era berean, DBHko ikasleek antolatutako tailerrak izan ziren: margoak, globoak...

Jarraian, herri kirol eta jolasak Kulki taldearekin. Talde honek kultura eta kirola uztartzen ditu eta garai bateko herri kirol eta jolasak berreskuratu ditu eta ikastolako adin guztientzat antolatu zituzten bereziki. Aipatu behar dugu oso jolas bereziak zirela. Ikastolan antolatu zituzten kirolak eta jolasak baserri girokoak ziren, hala nola: orga jokoa, lasto altxaketa, eskuorgak, ahari talka, txinga erute, ingude altxaketa, lokotx bilketa, laia lasterketa, hanka paloak, pitipoteak, pirleak, toka, igelaren jokoa...

Eta bukatzeko, 18:00etan, ikasle ohiekin osatutako EBERLAU musika taldearen emanaldia izan zen, gazte-txoek goza zezaten.

Eta egunari amaiera egokia emateko berriro dantzaldia izan zen trikitilari eta pandero joleekin, aspertu arte.

Eta, gainera, bertara hurbilduko zirenen egarria asetzeko asmoz, DBH 3. mailako ikasle eta gurasoek taberna antolatu eta martxan jarri zuten. A, eta argazki erakus-keta bikaina ere ezin daiteke ahaztu.

Ikastola Egunaren helburua da, hain zuzen ere, ikastolako proiektua aurrera daramagun guztiok festa alai baten inguruan elkartzea, elkar indar berrituz, gure eus-kara eta kulturari tiraka jarrai ahal izateko. Eta aurtengo ekitaldian hori lortu genuela ziur gaude.

Hona hemen bizikletaren irabazlea: Mari Karmen Leonet guraso ohia.

Bejondeiola!!

*Mari Karmen Leonet fué la agraciada en el sorteo que se celebró el día de la Ikastola. En la foto vemos a Mari Karmen recogiendo la bicicleta.*

Zorionak!!







## HAURTZAROKOAK, LEHIAKIDE APARTAK



Literatur lehiaketetan emaitza bikainak lortu dituzte Haurtzaroko ikasleek.

Hona hemen horren guztiaren berri.

Alde batetik, Galtzagorri Elkartek eta Euskaldunon Egunkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, Idazle Gaztea literatur lehiaketa antolatu zuen DBHko ikasleentzat. Idatzitako lanak posta elektronikoz bidali behar ziren eta gure ikastolatik lan mordoxka aurkeztu genuen: 10 narrazio-testu eta 14 poesia, zehazki. Adituen batzorde batek 10 lan hautatu zituen Gipuzkoatik jasotako lan guztietatik, sail bakoitzean Egunkariaren web orrian argitaratzeko. Non gure poza 10 narrazio-testu horietatik 5 Haurtzarokoak zirela ikusi genuenean, eta 10 poesietatik, berriz, 7. Ondoren, web orri horretan sartzen zen edozein irakurlek eman zezakeen botoa eta, boto-kopurua kontatuta, hona zein izan diren gure ikasleek jasotako sariak.

A kategorian, poesian, bigarren saria, DBH 2ko Iraia Errandonearentzat izan da. B kategorian, berriz, 1. saria DBH 3ko Jon Odriozolarentzat, 2. saria DBH 4ko Eneritz Arbelaitzentzat eta 3. saria, DBH 3ko Alaia Martinentzat. Beraz, poesiari dagokion kategorian honetako sari guztiak Haurtzarora etorri dira.

Zorionik beroenak saria jaso dutenei eta baita Egunkariako web orrian azaldu diren gainerako ikasleei ere, hala nola, Irati Mujika, Ekiñe Aristizabal, Maddi Suarez, Iñigo Gartzia, Garazi Labordeta, Gorka Agirrezabala, Aintzane Irastorza eta Nerea Aizpururi. Zorionak zuei ere, ez duzue gutxiago merezi eta.

Eta besterik zer? Ba... lehenengo saria jaso duenak ondo pasa dezala Parisen eta besteek ere goza dezatela jasotako opariekin. Ezer jaso ez duenak, berriz, eutsi diezaioa goiari, hurrengoan lor dezake eta.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak urtero-urtero Urruzuno Literatur lehiaketa antolatu ohi du 14-18 urte bitarteko ikasleentzat. Bi kategorian bereizten dituzte: 14-16 eta 16-18. Gure ikastolatik, B kategorian, eta poesian, DBH 3ko Leire Jauregi eta DBH 4ko Miren Beramendi izan dira sarituak. A kategorian, berriz, prosa sailean, Oizartzon dabilen Goiatz Labandibarrek irabazi du saria. Eta ez dute nolanahiko saria irabazi: 10 eguneko bidaia Europan barrena, gastu guztiak ordainduta eta, gainera, 250 € poltsikorako. Hori suertea! Askoren inbidia zareten une honetan, zorionik beroena zuei ere.

Eta, bukatzeko, guztientzat gonbidapena: jarrai dezagun boligrafoa edo errotuladorea dantzan jartzen, batzuetan paso-doblea ateratzen zaio eta.

Animo! guztiei eta zorionak! sarituei.

### Premios de nuestro/as alumno/as

Mediante estas líneas os queremos dar a conocer los excelentes resultados que nuestro/as alumno/as de ESO han obtenido en diferentes concursos literarios. En total, 7 de nuestro/as alumno/as (6 de Haurtzaro y 1 de Oizartzo) han recibido algún premio. Por lo tanto, podemos decir que están y estamos de enhorabuena.

Aunque los premios no son indicadores de calidad, cuando lo/as alumno/as los consiguen, nos proporcionan una gran satisfacción y a la vez nos demuestran que el camino elegido puede ser el adecuado.

Felicidades a todas las lo/as premiadas y ánimo a lo/as demás para que sigáis escribiendo.





HIRU URTEKO NESKA-MUTILOK EZ DUGU GELAN BAKARRIK IKASTEN.  
HEMEN DITUZUE ADIBIDE BATZUK:

BASERRIA BISITATZEN, AZOKA IKUSTEN, ZULOAGAREN ARTELAN  
BATZUK HURBILETIK EZAGUTZEN...



PLAYAUNDIN  
HEGAZTI ETA  
IGEL ASKO  
IKUSI  
GENITUEN.  
ZE ONGI PASA  
GENUEN!

H.H.2.ko ikasleak





## 5 URTEKOAK UDABERRIAN...




EZTIA NOLA EGITEN DEN AITA BATEK ERAKUTSI DIGU.



BARAZKIEI  
BURUZ ERE  
ASKO IKASI  
DUGU:  
NOLAKOAK  
DIREN,  
BERAIEN  
USAINAK,  
ZEIN ZATI  
JATEN  
DIEGUN...





## GOTZON GARATEREKIN ELKARRIZKETA



Apirilaren 15a, astelehena, izan zen Gotzoni elkarrizketa egin genion eguna. 11:30tarako joan ginen udaletxeko aretora eta bera etorri bezain laster hasi ginen galderak egiten.

Giroa oso atsegina izan zen. Bere hitz jarioa, sentimenduen naturaltasuna, mintzamena, motibazioa, kulturaren islapena, pasadizoak... hori guztia harrigarria eta txundituta uzteko modukoa zenez, adi-adi egon ginen denok.

Ohartu ginenerako, jada ordua zen –bukatzeko ordua alegia– eta agurtu ondoren, denak bazkaltzera joan ginen. Baina beste hainbeste egon izan bagina ere, oso gustura jarraituko genukeen.

Beraz, Gotzoni horrela jarrai dezan opa diogu.

**DBH 3Bko Ariane Retegi**





## IBILALDIA: MIRANDAOLAKO BURDINOLA

DBH 3  
Apirilak 18

### Gazta museoa Ormaiztegiko trenzubia

Mirandaolako burdinola (XV. mendekoa, eta 1952an zaharberritua) Euskal Herriko industrializazioaren lekuko miresgarrienetakoa da, eta bertan ikus daitekeena oso interesgarria da. Oso egun atsegina eta entretenigarria izan zen.

Goizeko 08:00etan atera ginen Oiartzundik Legazpi aldera. Han, burdinola bisitatu eta diaporama atsegin bat ikusteko aukera izan genuen.

**Ondoren gaztak nola egiten diren ikustera joan ginen. Bikain!, guztia oso interesgarria**


**eta era berean goxoa, zeren eta Erraizabalgo artzainak, bideoa erakutsi eta erakusketaren berri eman ondoren, bere kalitatezko gazta dastatzeko aukera eman baitzigun: "Uuummmmmmm!!!!, ze goxoa!"**

Azkenik Ormaiztegiko zubia ikustera joan ginen, 320 m luze eta 34 m-ko altuera duena. Zubi hau 1864an inauguratu zen eta obrarik garrantzizkoena izan zen Paris-Madrid trenbidea egin zutenean. Bere historia entzun eta gero, zenbateko garrantzia zuen konturatu ginen.





# БЕЛОРУССКАЯ ШКОЛА









# BARRIA

ARABA



# GORLIZ

BIZKAIA



EUUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO







## IPUINAK IKASGAI

Pello Añorgaren eskutik



Udal Kultura departamenduak antolaturik eta Intxixu-AEK Euskaltegiak lagunduta, ikastaro bat egin da herrian. Ez da ohikoa izan, ordea: gaiaren aldetik, ipuinak ziren gai ardatza; jasotzaileen aldetik, gurasoei zuzendua zegoen; arduradun, berriz, herriko ipuin-kontalari ezagun eta hainbat urtez Haurtzaro Ikastolako irakasle izan dugun Pello Añorga.

Entzun ere entzun diegu "ikasleei" oso gai serio eta, aldi berean, gustukoa deskubritu dutela. Datu horiek eskuetan, ikastaldian landutako gai batzuk gurasoen esku jartzeko eskatu diogu Pellori.

**Txinpart:** Nolatan ikastaro bat, ipuina ardatz duena?

**Pello Añorga:** Gaur egun, nahiz eta ipuin kontalari gisa aritu Euskal Herrian barrena, irakasle ere banaiz Mondragon Unibertsitatean; eta han, liburu-mintegi bat eramateaz gain, esku artean darabildan gaia kontakizunarena da: ipuinak nola kontatu irakasten diet biharko maisu-maistrei. Ipuina oso tresna eraginkorra baita haurrarekin komunikatzeko; eta ez bakarrik komunikatzeko, baita bere bihotzeraino ere iristeko.

**Txinpart:** Eta zer azpimarratuko zenuke ikastarotik?

**PA:** Aipatzekotan, lehendabizi aipatuko nuke gurasoak izan direla "ikasle". Izan ere, irakasleei askotan ematen dizkiet horrelakoak, baina ez dira asko gurasoei ematen dizkiedanak. Alde horretatik oso ahogozo onarekin geratu naiz eta baita beraiek ere, entzun diedanez. Gainera, kontu zaharren altxorraz jabearaztea leiho berriak irekitzea izan da askoren-tzat.

Kontatzeko momentuari dagokionez, zera azpimarratuko nuke, alegia, ipuinak kontatzerakoan giroak garrantzi handia duela. Girorik gabe, zaila baita atenzioa jartzea eta ipuina behar den moduan entzutea. Gure gizartean —eta etxeetan zer esanik ez!— dispersioa bizi dugu; ezin gara ipuinak kontatzen aritu eta aldi berean arrautzak frijitzen edota telebista ikusten egon. Kontatzeak elkar entzutea eskatzen du, hau da, presentzia guztiarekin egotea. Eta gaurko gizartean hori ez da batere erraza. Denbora hartzen jakitea ezinbestekoa da. Edota, beste hitzetan esanda: denbora galtzen ikastea.

**Txinpart:** Ipuin askotan pertsonaia gaizto-gaiztoak edota beldurgarriak azaltzen dira (otsoa, sorgina...); zer derizkiozu horretaz?

**PA:** Lehen haurtzaroan kontrasteak garrantzitsuak dira: elementu kontraerriak agertzea, borroka argiak, irtenbide garbiak... Alde horretatik, pertsonaia "gaizto", "beldurgarri" edo "enigmatiko" horiek lagungarri ezin hobeak dira haurraren garapenean. Ez ahaztu, gaurko munduan ere, otso beldurgarri ugari dagoela Txanogorritxu engainatzeko prest. Alabaina, Txanogorritxuk jakin behar du otsoari aurre egiten. Bestela ez da haziko, ez da etxetik aterako eta ez da basoan barrena abiatuko lore berrien bila, amonaren etxeaz harantzago.



**Txinpart:** Zergatik hainbeste errege-erregina, hainbeste printze-printzesa ipuinetan?

**PA:** Hain zuzen, denak bizitza honetan printzeak edota printzesak garelako. Zer izateko? Ba, errege-erreginak. Eta zer da errege izatea, edota erregina? Bada, baserritarrek erabiltzen duten hitza erabiliz: nork bere lekua "gobernatzeko" jakitea; jaun eta jabe





izatea, erantzukizunak hartzen jakitea, eta abar. Horrelako erregea ezin daiteke joan eskiatzera Bakeirara eta hanka hautsiarekin bueltatu; hori ez da literatura, horrek egunkarietako palomitekin zer ikusi gehiago dauka. Zeren, gauza bat da Carlos V ardoa, edota lau izarreko Hotel Printzesa; eta bestea literatura, kontu zaharretan agertzen den figurazio literarioa.

**Txinpart:** Eta kontuak zein adinetarako dira?

**PA:** Kontuak bai al dute adinik, ba? Denok ez al ditugu kontuak behar? Gaizki gaudenean, edota deprimi-tuta, lehendabiziko gauza egiten duguna ez al da kon-tatzea? Kontatu, kontatu eta kontatu. Kafetegian sartu eta kontatu; telefonoa hartu eta gure arazoak kontatu, edota besteen kontuak harrotu. Kontuak beharrezkoak dira, oxigenoa bezala. Baina badira kontuak eta "kontuak". Oraindik orain honela esaten zidan Oiartzungo amona zahar batek: "kontuak horiek, bai, horiek kontuak, enganiatzeko gu bezalako tontuak". Bizi garen gizartean bai al dakizu zer nolako "kontuak" saltzen dizkiguten?

**Txinpart:** Eta gauari buruz zer? Zer ote du gauak ipuinen une aproposena izateko?

**PA:** Haurrak, une horretan, ametsaren lurralde ilu-nean sartu behar du eta beldurrak dago. Badaki lurralde horretan mamuak daudela, munstroak, eta horregatik gure presentzia eskatzen du. Askotan, haurrak ipuina baino gehiago gure presentzia da eskatzen duena, gure "zupete afektiboa" ematea. Eta "zupetea" modu askotakoa izan daiteke: kantuzkoa, hitzezkoa eta abarrezkoa; baita ipuinezkoa ere

**Txinpart:** Eta gaurko garaiotan kontakizunek ba al dute zentzurik, lekurik, egitekorik?

**PA:** Begira, gauza bat esango dizut: gaurko egunean, informazioaren aroan bizi garenez, datuak barra-barra dauzkagu edota eskura ditzakegu, behinik behin. Baina, hauxe da galdera: gure sentimenduak konpartitzen al ditugu haurrekin? Izan ere, gero eta tarte gutxiago baitugu gure sentipenak konpartitze-ko. Ipuinak kontatzerakoan, aldiz, gure sentimenduak konpartitu ditzakegu haurrekin eta gure arteko harreman afektiboa sendotu. Eta XXI mendean ere hori oso garrantzitsua izango da. Adimena eta emo-zioa uztartzen jakin beharko dugulako, hau da, burua eta bihotza. Eta hasieran esan dudana bezala, ipuina oso tresna garrantzitsua da haurraren bihotzeraino iristeko. Haurraren taupadekin harreman gaitezke eta dantza berrian mugiarazi.

Nork esan zuen ipuinak haurren gauzak zirela? ez dugu uste hori pentsa litekeenik, batez ere honoko elkarrizketa izan ondoren. Besterik gabe, mila esker Pellori, eta beste bat arte!





## SUKALDARITZAN TXAPELDUN



**E**rrenteriako Euskaldarrak elkarteak urtero antolatzen duen elkarten arteko sukaldaritza-txapelketan Josemari Gezala Haurtzaro Ikastolako guraso-kidea izan da aurtien txapelduna, Oarsoaldeko 24 elkarteren artean.

Ikastolan dugun gastronomi eta "gourmet" maila bikainaren frogagarri, esan dezagun Haurtzaroko beste guraso batek lortu zuela bigarren lekua: Juan Ramon Azkaratek, alegia.

**ZORIONAK BIOI ETA "GUSTU" DUZUEN ARTE.**

## GURASOOK JAKIN DEZAGUN...

Hala du izena orain zauden atal honek. Hala, beraz, jakin badela Euskadi Irratian saio bat gure ikastolako psikologoa den Miren Garbizuk daramana. Bertan gurasoon seme-alabekiko heziketaren inguruko gaiak jorratzen dira era labur bezain argi eta interesgarrian... eta baliagarrian.

Saioan, gainera aukera dago galderak egiteko, gaiak planteatzeko, argibideak eskatzeko, etab.

Gurasoontzako, beraz, astelehenetan dago zita Euskadi Irratian goizeko 11:00etatik aurrera.





## VISA TXARTELA ETA ELKARTASUN KUTXA



### - VISA IKASTOLAK TXARTELA ZER DA ?

Visa Ikastolak txartela erosketen ordainketarako txartela da.

### - VISA IKASTOLAK TXARTELA ZERTARAKO BALIO DU ?

Euskadiko Kutzarekin egindako hitzarmen baten bidez, txartel honen erabilpenaren arabera, Ikastolen elkartasun kutxari diru kopuru bat ematen dio Euskadiko Kutxak.

### - IKASTOLEN ELKARTASUN KUTXA, ZERTAN INBERTITZEN DUGU ?

IKASTOLEN ELKARTASUN KUTXAren sistemaren bidez behar berezia duten Erkidegoko ikastolei;

Nafarroako ikastolei eta Seaskari diru subentzio bat ematen zaie.

Kontuan hartzen badugu, ikastolaren eta euskararen aldeko jaietan (Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats), urte osoko lanaren emaitza 40 milioi ingurukoa izaten da jai bakoitzean, beti ere eguraldia lagun badugu. VISA IKASTOLAK TXARTELAren erabilpenarekin denon artean 22 milioi atera genituen ia batere esfortzurik gabe.

### - VISA IKASTOLAK TXARTELA, NOLA ATERA DEZAKET ?

Edozein entitate finantzarioko kontua baliagarria da VISA IKASTOLA TXARTELA ateratzeko, ( KUTXA, B.Gipuzkoano, BBVA, BSCH, La Caixa, e.a...)

## LA TARJETA VISA IKASTOLAS CAJA DE SOLIDARIDAD ENTRE LAS IKASTOLAS

### - ¿ QUÉ ES LA TARJETA VISA IKASTOLAK ?

La tarjeta Visa Ikastolak es una tarjeta de compras y crédito.

### - ¿ QUÉ CONSEGUIMOS CON LA TARJETA VISA IKASTOLAK ?

Por medio del acuerdo que tenemos firmado con Caja Laboral, por cada tarjeta VISA IKASTOLAK y por su utilización, recibimos una cantidad de dinero que va a parar a la caja de solidaridad.

A mayor número de tarjetas VISA IKASTOLAK, recibimos mayor aportación económica en la Caja de Solidaridad. Nuestro objetivo: superar entre todos la cantidad de 22 millones de ptas. del año anterior.

### - ¿ EN QUÉ PROYECTOS INVERTIMOS LA CAJA DE SOLIDARIDAD DE LAS IKASTOLAS ?

En el año 2001 se han primado los proyectos de las siguientes Ikastolas: Nafarroako Ikastolen Elkartea, Seaska, Abusu Ikastola (BILBO), Betiko Ikastola (LEIOA), Zubi Zaharra Ikastola (BALMA-

SEDA), Txintxirri Ikastola (ELORRIO), Ibaizabal Ikastola (DURANGO), Ikasberri Ikastola (AZPELTIA), Beasaingo Ikastola ( BEASAIN) y Armentia Ikastola (GASTEIZ).

Sabemos que en las fiestas a favor del euskara y las ikastolas, (KILOMETROAK, IBILALDIA, ARABA EUSKARAZ, NAFARROA OINEZ, SEASKA) se suele obtener, después de un gran esfuerzo humano y si el tiempo es favorable, unos 40 millones de pesetas en cada fiesta. Si comparamos con ese dato el que la simple utilización de la TARJETA VISA IKASTOLAK nos ha aportado la cantidad de 22 millones de pesetas, pensamos que este recurso de financiación debe de ser prioritario también.

### - ¿ CÓMO PUEDO CONSEGUIR LA TARJETA VISA IKASTOLAK ?

Para obtener la tarjeta VISA IKASTOLAK es válida cualquier cuenta en cualquier entidad financiera, (KUTXA, B.Gipuzkoano, BBVA, BSCH, La Caixa, etc...)





## IRITSI GARA XX. LEXOTI SARIRA

Bertsoaren gurpilak 20 urte daramatza bueltaka Haurtzaro Ikastolan. Joan den maiatzaren 25ean, pleno aretoan, 20. Lexoti saria ospatu genuen. Hona hemen hiru sarituen bertso bana.



**Gaia:** Ohartu naiz nire lagunek bazterrera utzi nautela.

Baina nire bururik  
Ezin dut nahasi  
Lagunen jokaeraz  
Hauxe dut ikasi:  
Egin nahi dutelako  
Nigandik ihesi  
Nire laguntasunik  
ez dute merezi.

**ANE BADIOLA**

**Gaia:** Niri hainbeste gustatzen zaidan neska beste batekin ikusi dut.

Bihotza apurtu zitzaidan  
Bi pusketa handietan  
Ta hori isladatzen zen  
Nire negar malkoetan  
Zuk ni enganiatzea horrek  
Min eman zidan benetan  
Nik nahi zintudan betiko  
Nire beso goxoetan  
Gogoratzen naiz ni orain  
Tristura eta penetan  
Zer nola pasatu genun  
Gure herriko jaietan  
Baina asunituko dut  
Ohituta nago horretan  
Aspalditik galtzaile naiz  
Maitasun kontu hauetan

**BEÑAT BADIOLA**

**Gaia:** Gaur gurasoek adoptatua naizela esan didate.

Hori jakinta gelditu nintzen  
zulo bat bezain iluna  
ilzan ninteke estranjeroa  
agian naiz euskalduna  
momentu honetan ez daukat  
behintzat  
oso memori txukuna  
zuek erreakzioa eskatu,  
hona hemen erantzuna:  
nik itzuliko zuek niretzat  
emandako maitasuna

**UNAI BARRENETXEA**





## KULTUR TOPAKETAK

Kultur topaketa Apirilaren 16ko astearte goizean izan zen. Bertara ikastetxe ezberdinetako jendea joan zen.

Leku hartara iritsi ginenean, guk landutako kulturara joan ginen, Latinamerikara hain zuzen ere. Bertan taldeetan banatu gintuzten eta tailer ezberdinetan parte hartzeko prest geunden. Lehenik eta behin, gure taldean aurkitzen ginen jendearekin harremana egiteko ezagutza jolas batzuk egin genituen, beranduago talde giro on bat egon zedin. Horrela bada igaro zen lehenengo ordua, eta hau bukatutakoan hamaiketakoa egitera joan ginen. Beranduago tailerrak egiten hasi ginen, hiru tailer mota zeuden: gastronomia, bertan beraiek jaten dituzten produktuak probatu eta hango fruituen berri eman ziguten. Gero, mintzamenaren izenpean zegoen beste tailerrera joan ginen eta han Latinoamerikako lurraldeak non aurkitzen ziren ikusi genuen, eta lurralde bakoitzean zein hizkuntzatan hitz egiten zen ere. Beranduago, dantza tailerra eduki genuen eta bertan salsa, merenge eta beste dantza batzuen oinarritzko pausoak irakatsi zizkiguten. Azkenik guztiak elkarturik kultur ezberdinetako dantzak egin genituen, eta modu honetara bukatu zen jaialdia.

Esperientzia hau guretzat polita izan da beste pertsona eta kulturak ezagutu ditugulako, garrantzitsua da horrelako ekintzak egitea. Beraz, igarotako goiz zoragarri hau onuragarria dela iruditzen zaigu bertan parte hartutako guztientzat.







## MAGREB

Liluragarria izan da Magrebtarrekin pasa ditugun orduak. Bertan asko ikasi dugu. Ikasitakoa hiru tailerretan landu genuen. Askok harritu gintuen gauzetako bat genak Magreben duen garrantzia da. Aurrenik esan, gena ez dela tinte bat, landare bat baizik. Landare honek erabilera asko ditu: buruko mina kentzeko, tripako mina kentzeko, haurrei begietan jaiotzen direnean botatzeko etab... Baina erabilera harrigarriena ezkontzetan emakumeei tatuajeak egiteko da. Beraiek, andregaiak ezkontza egunean eramaten dituen tatuajeengatik baloratzen dute ezkontza. Nahiz eta soineko ederra eraman eta janari ona eskaini, bere tatuajea itsusia bada, bere familiaren izena zikindu egiten da. Tatuajeak ezin dira errepikatu, hau da, tatuargileak ezin du, inoiz, bi emakumeei marrazki bera egin, buruan azaltzen zaiona egiten du, eta horregatik bost orduko prozesuak bihurtzen dira.

Beste gauza harrigarri bat beraien idazkera da. Hauek eskuinetik ezkerrera idazten dute eta beraien alfabetoan ez dago bokalik. Nahiz eta hizkuntza nagusia arabiera izan, beste hizkuntza batzuk ere badaude. Munduko hizkuntza guztietatik zailena ikasteko arabiera da. Etorkinek honera etortzeko oso gaizki pasatzen dute eta hemen ere. Alde batetik lanaren falta dagoelako eta bestetik familiaren falta dutelako.

Euskal Herriko aniztasuna asko ugaritu da inmigranteen etorrerarekin. Gainera guretzat oso positiboa da besteen kultura ezagutzea. Eta horrelako beste esperientzia bat egin nahiko genuke.

## AFRIKA BELTZA

2002ko apirilaren 16an Lasarteko ikastola batera joan ginen. Bertan S.O.S Arrazakeriak antolatu zuen jardunaldietan izan ginen goiz osoan.

Ikastolan landutako kulturaren txokoetan ibili ginen.

Afrika beltzaren tailerrak hiru zati zituen:

- 1.- Bertan, musika tresna bat "BON GOEA"-n erritmo bat jotzen ikasi genuen.
- 2.- Han Afrika Beltzeko historia azaldu ziguten. Adibidez:
  - "Negreroak" (beltzak hartzen zituztenak) nola tratatzen zituzten.
- 3.- Azkenik, trentzak egiten zituzten tailerrera joan ginen. Bertan trentzak egiteaz aparte galderak egin zitezkeen.

Guk orain ulertzen dugu Afrikatik etortzen diren beltzak zeinen gaizki pasatzen ari diren eta aurreko 400 urteetan zeinen gaizki pasa duten.







Beraiek gauza bat eskatzen dute; Europara etortzen direnean errespetua izatea, europarrak kendu baitiegu milaka afrikarri bizia. Beraiek ez datoz esklabo bila, lan bila baizik, beraiek bakea nahi dute. Beraiek 100.000 ptako soldatarekin 20 pertsonako familia afrikar bat mantendu dezakete.

Beraz, har dezagun beraiegen konfiantza eta pertsona bezala trata ditzagun, pertsonak baitira

Utzi arrazakeria alde batera!

## IJITOAK

Bertan eginiko esperientzia oso polita izan zen. Lau kultur ezberdin zeuden eta guk ijitoen kulturari buruz ikasi genuen.

Lehen ijitoarekiko genuen iritzia erabat aldatu da. Ijito hitza erabiltzen genuenean, bere esanahia, nahastu genuen: itsusia, zikina, lapurra... Uste genuen pertsona txarrak zirela. Ijitoz hainbat esaldi entzuten ditugu, adibidez, "istripu batean lau pertsona eta ijito bat hil dira", hori guretzat izugarritzko diskriminazioa da zeren ez da zuzena ijito gaizto batzuegatik, hain kultura ederreko pertsonen fama txarra hartzea.

Hara joan ondoren, ikusi dugu ijitoak ez direla guk pentsatzen genuen bezalakoak. Beste kultura bat izanik, gu bezalako pertsonak dira.

Bertan, beraien kultura erakutsi ziguten. Hiru tailetan banaturik:


Dantza eta kantua landu genituen eta beraien alaitasuna ikusi genuen momentu oro. Izan ere bertako bi urteko umea ikusi besterik ez zegoen, beraiek musika barruan dutela jakiteko.

Ondoren, kafea eskaini ziguten beraien ongietorria adierazteko eta bitartean beraien ohiturak kontatu zizkiguten. Ezkontzean egin behar zutena eta inguruko norbait hiltzean nola jaten ziren. Ezkontzakoan, mutilak neskaren aitari eskatzen zion neskaren eskua. Lutuz jatzeko, painulu beltz bat jaten zuten lepoan, horrekin batera, ez zuten telebista ezta musika entzuten.

Beraien historia kontatu ziguten. Beraiek noiz eta nola etorri ziren kontatuz eta beraien bizimodua nolakoa zen esanez. Beraien hizkuntza galdu zutela esan ziguten eta hitz batzuk erakutsi zizkiguten.

Azkenik, kultura guztiak elkartu eta kultura ezberdinetako musikekin batera dantzatu genuen.


## GORPUTZ HEZKUNTZA ETA KIROL ESKAINTZA



**Hirugarren ebaluaketa oparoa izan da kirol eskaintza eta parte-hartzeari dagokienez.**

**Alde batetik, Ikaspilotatik bultzatuta, badira zenbait urte Haurtzarok parte hartzen duela proiektu polit honetan: 5. mailako ikasleak pilota topaketetan eta DBHko lehen mailakoek herri kirolen topaketetan.**





IKASPILOTak, esan bezala, urtero pilotaren inguruko topaketak antolatzen ditu LH 5eko ikasleentzat. Bertan, gure bailarako ikastetxeek parte hartzen dute. Ikasleek gorputz heziketako saioetan landutakoa praktikan jartzen dute goiz-pasako saio honetan. Azken zatian antolatzen den lehiaketan gure neska-mutilek, Elizaldekoekin berdinduta, bigarren postua lortu zuten gainera!

HERRI KIROLN III. TOPAKETA maiatzaren 2an eta 3an egin da Lezo eta Oreretan. Topaketaren egiturak parte-hartze zabala eskaintzen du eta taldeak 15 eta 24 partaide bitartekoak izan dira, DBHko neska-mutilez osatuak.

### Bertan 6 jolas motatan aritu dira:

- Lokotxak, txikorta.
- Zakua eramatea.
- Giza proba.
- Lasterketa.

- Txingak
- Sokatira.

Sortutako giroak aipamen berezia merezi duela uste dugu. Festa, jolasa, txaloak,... nagusi izan dira lehiakideen artean eta kirola egiteak sortzen duen atsegina das-tatzeko aukera aparta izan dute bertan bildutakoek.

Hau guztia borobiltzeko Haurtzaroko taldeek Gipuzkoa mailan jokatu diren topaketetarako txartelak eskuratu dituzte eta hauek maiatzaren 17an Zumarragan eta ekainaren 1ean Donostian izan dira.

Kirol eskaintzarekin jarraituz PIRAGUA da beste ekintzetako bat. Santiagotarrak elkarteko zenbait begiraleren laguntzarekin Bidasoa ibaiaren jaitsiera egiten ari gara DBH 4koekin. Urak eta ibaiak eskaintzen dituen aukeraz baliatzen gara eta bertako ur lasterrak esperimendu eta gure indarrak neurtzen ditugu naturarekin bat eginez.





## Nor norekin?








## Familian

Elkartu animalia bakoitza bere kumearekin.



BEHIA  
BEHORRA  
AHUNTZA  
ARDIA  
OILOA

TXAHALA  
TXITA  
ARKUMEA  
ANTXUMEA  
MOXALA





# LABURPEN TENTATZAILEA

## IRAGANEAN GALDUA


1. Idazlea: ABELIN LINAZISORO

2. Argitaletxea: TXALAPARTA

### LABURPEN TENTATZAILEA:

Ixiar, Agustinen neskalagun ohia, gaixorik dago, oso larri.

Azken astetan Agustinen izena errepikatzen du ametsetan. Kezka handi bat du barnean, baina senarrari ez dio ezer esan nahi. Baina 22 urte daramate elkarrekin eta bereizi egin ziren Agustin preso sartu zutenean. Liburu honetan Agustin eta Ixiarren arteko maitasunaz hitz egiten du, bat preso eta bestea kanpoan dagoelarik.



### IRITZIA:

Oso polita da, gainera irakurtzen ari zaren heinean, historia imajinatzen duzu.

**irakurri ezazu,  
merezi du eta!!**



Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



# kutxa

zuri esker  
gracias a ti



## "la Caixa"

"Oiartzuarren  
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



## CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



### ETXE ONENAK, S.A.

*Bizitegi Sustapena*

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3<sup>a</sup> dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



## BIOK ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

## construcciones ARABOLAZA S.L.

*Berriztatze lanak*

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



## Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN Km. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es  
OIARTZUN - GIPUZKOA



## TAJO

### Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON  
COMPONENTES

# NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



## Alcampo

### OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



## A M E N A B A R

AENOR



Empresa  
Registrada

ER-424/2/96

## SEAT

### Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



### OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



## Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa  
Diagnosia  
Salmetak  
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46

## Carrefour



### OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA